



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union

Proiektuaren kodea: 2022-1-IE01-KA220-SCH-000089856

Proiektuaren akronimoa: Astronomie

Proiektuaren izenburu osoa: Astronomia ikasten Minecraft-en bidez



## **Prentsa-oharra – Astronomie proiektua abiatzeko bilera**

*Dublinen, 2022ko azaroaren 16an*

2022ko azaroaren 15ean eta 16an, Europako sei herrialdetako parte-hartzaileak bildu ziren Dublinen (Irlanda), Drumcondra ikastetxean, Astronomie proiektuaren lehen bileran.

‘Astronomie - Astronomia ikasten Minecraft-en bidez’ Erasmus+ programatik laguntza jaso duen proiektua da. Helburutzat du 9-12 urteko gazteen artean STEAM gaien

Europar Batasunak finantzatua. Hala ere, adierazitako iritziak partaideenak baino ez dira, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunekoak edo Hezkuntza eta Kulturako Agentzia Betearazlearenak. Ez Europar Batasuna, ez EACEA ezin dira horien erantzuletzat hartu.



Co-funded by the  
Erasmus+ Programme  
of the European Union



interesa suspertzea, eta astronomia-gaien inguruko ezagutza eraikitzea Minecraft joko erabilia. Astronomiako ezagutzez gain, zeharkako konpetentziak garatzea ere bilatuko du, hala nola logika, sormena eta pentsamendu zientifikoa, horretarako Minecraft-eko hainbat mundu sortuta.

Proiektua 2022ko azaroaren 1ean hasi zen ofizialki, eta 24 hilabetez jarraituko du. Abiatzeko bileran, partzuergoko liderrek hurrengo 6 hilabeteetarako aurreikusitako edukia, helburuak, jarduerak eta lanak ere aurkeztu zituzten.

Proiektuaren webgunea ere prest dago: <http://astronomie.erasmusplus.website/>. 2024an doan argitaratuko da 9-12 urteko gazteekin astronomia lantzeko joko-sorta.

**Harremanak:**

Danel Solabarrieta Arrizabalaga, proiektu-koordinatzailea

Elhuyar – Euskal Herria

[d.solabarrieta@elhuyar.eus](mailto:d.solabarrieta@elhuyar.eus)

Astronomia Minecraft-en bidez (Astronomie) ikastea Erasmus+ ezagutza-aliantez proiektu bat da, Drumcondra (Irlanda) Hezkuntza Zentroak zuzendua. Partzuergoko gainerako kideak Private School Themistoklis (Grezia), NUCLIO (Portugal), Atermon B.V. (Herbehereak), Hearthands Solutions (Zipre) eta Elhuyar Fundazioa (Euskal Herria) dira.

Europar Batasunak finantzatua. Hala ere, adierazitako iritziak partaideenak baino ez dira, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunekoak edo Hezkuntza eta Kulturako Agentzia Betearazlearenak. Ez Europar Batasuna, ez EACEA ezin dira horien erantzuletzat hartu.

